



# Kontsumoak erkatu

## Gai honekin zerikusia duten arloak

- INGURUNE NATURAL ETA SOZIALAREN EZAGUERA.
- MATEMATIKA.

## HELBURUA

- Egunerokoan erabiltzen dugun ur kantitatea kalkulatzeko eta beste herrialde batzuetan erabiltzen dutenarekin erkatzea.

## Jardueraren garapena

Hasteko, galdera batzuk egingo ditugu: horietako batzuei erantzun egin beharko die; beste batzuek, berriz, ikasleei Hirugarren Munduan uraren erabiltzen diren inguruan gertatzen denaren berri emateko xedea daukate.

- Zenbat komun dago gure ikastetxean?
- Zenbat lagun gara geure eskolan?
- Zenbat aldiz erabiltzen du gutako bakoitzak eskolako komuna?


Badakizu...

- ...komunera joan eta tanga husten dugun bakoitzean, 10 litro ur botatzen dugula?
- ...Hirugarren Munduan 1.600 milioi lagunek ez daukatela ur korronterik etxean?
- ...persona horiek ur bila doazen bakoitzean, gehienez, 15 litro garraiatu ahal dituztela?

Galdera horiei erantzun ondoren, komunean zenbat ur erabiltzen dugun kalkulatzeko eskatuko diegu (ikasle kopuru osoa eta tanga husten dugun bakoitzean erabiltzen dugun ur kantitatea izan beharko dituzte kontuan).

Kantitatea ebazteko egin beharreko eragiketa matematikoak burututakoan, honako beste galdera hauek egingo dizkiegu:

- zenbat bidaia egin beharko genuke ur kantitate hori ibairik hurbilenetik garraiatzeko?,
- zenbat denbora beharko genuke horretarako?



Euskadiko eta Indiako grafikoetan, etxeke jardueretan erabiltzen diren ur portzentajeei buruz ageri diren datuak erreferentziatzat hartuz, Indian erabiltzen diren kantitate berberak erabiliko bagenitu, ura zertan eta nola aurreztuko genukeen erabaki beharko dute.